



ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EBAZTEN BAITA EUSKADIKO TAEKWONDO FEDERAZIOAREN APELAZIO BATZORDEAREN 2016KO EKAINAREN 1EKO EBAZPENAREN AURKA [REDACTED] JAUNAK JARRITAKO ERREKURTSOA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, PROBAK EDO LEHIAKETAK EGITEN DIREN BITARTEAN KIROL INSTALAZIOETARA SARTZEA HAMAR HILABETEZ DEBEKATZEN ZION ZEHAPENA JARRI ZITZAION.

Espediente-zenbakia: 15/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko ekainaren 24an, [REDACTED] jaunak, errekurtsoa jarri zuen Euskadiko Taekwondo Federazioaren Apelazio Batzordeak 2016ko ekainaren 1ean hartutako erabakiaren aurka (aurrerantzean, ETFAB). Erabaki horren bidez, probak edo lehiaketak egiten diren bitartean kirol instalazioetara sartzea hamar hilabetez debekatzen zion zehapena jarri zitzaion, falta astuna egiteagatik, Euskadiko Taekwondo Federazioaren Diziplina Araudiko 15.1 h artikularen arabera (aurrerantzean, ETFDA).

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsoa izapidetzea onartzea eta Euskadiko Taekwondo Federazioari (ETF) espedientea eskatzea erabaki zuen; halaber, egoki irizten zitzairen alegazioak aurkezteko epea eman zion. Alegazio horiek 2016ko irailaren 8an aurkeztu ziren.

Hirugarrena.- 2016ko ekainaren 30an, ezarritako zehapena zuhurtziaz indargabe uztea erabaki zuen KJEBak.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- KJEBk du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak (aurrerantzean, EKL), 138.a artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak (aurrerantzean, KJEBD), 3.a artikuluan.

Bigarrena.- ETFABak [REDACTED] jaunari zehapena jartzea erabaki zuen, Euskadiko borrokako taekwondo txapelketan Arbitraje Batzordea iraintzeagatik, 2015eko urtarrilaren 17an. ETFABaren ebazpenak murriztu egiten du Kirol Diziplinako epaile bakarrak jarritako zehapena; kirol-instalazioetara sartzeko bi urte eta erdiko debekutik hamar hilabetekora.

Hirugarrena.- Gaiaren funtsari heldu baino lehen, komenigarria da prozedura iraungitzeko errekurtsogileak egindako eskaera azterzea.

Errekurtsogileak hau azaltzen du:

“Bere garaian aurkeztutako apelazio-errekurtsioan espedientea iraungi izana alegatu zela. Alegazio hori honela oinarritu zen:

Euskadiko Kirolaren uztailaren 3ko 14/1990 Legearen 25.1. artikulua honela dio:

1. Euskal federazioek eta lurralde-federazioek administrazio-egiteko hauek beteko dituzte:

[...]

f) Kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea.



Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aplikatu behar da, eta haren 1.1 artikuluan hau xedatzen da:

Euskal Autonomia Erkidegoan zigortzeko ahalmena duten ente guztiek ezarri beharko dute lege hau, erakunde komunek araugintzako eskumena duten arloetan, eskumen hori erabatekoa izan edo Estatuarekin edo lurralde historikoetako organoekin banatutakoa izan. Horrenbestez, federazioak duen zehatzeko ahalaren izaera administratiboa kontuan izanik, arau hori aplikagarria da, eta harira dator 43.1 artikuluan xedatutakoa:

Ebazpena sei hileko epean jakinarazten ez bada, prozeduraren hasieratik zenbatuta, iraungi egingo da prozedura, 30/2015 Legean ezartzen den moduan eta bertan deskribatzen diren ondorioak izango dituelarik.

Diziplina-prozedura 2015eko otsailaren 26ko probidentzia baten bidez hasi zen; beraz, iraungitze-epea 2015eko abuztuaren 26an bete zen. Zehapen-ebazpena, alabaina, 2016ko apirilaren 1 2 koa da, hau da, iraungitze-data amaitu eta ia zortzi hilabete geroagokoa.

Eta izandako atzerapen luze horretan ezin zaio inolako erantzukizunik egotzi alde honi; izan ere, instrukzioko aldian beharrezkoa den prozesu-bultzakadaren egintzetan, dirudienez inolako arrazoirik gabe, igaro diren epe luzeegiei zor zaie soil-soilik.

Hori dela-eta, Apelazio Batzordearen argudioak guztiz ulertezinak dira. Aurreikusitako iraungitze-epea prozeduraren hasieratik behin betiko ebazpenaren jakinarazpenera artekoa da, eta ez prozedurako egintza bakoitzaren artekoa. Ez da inolako arrazoirik alegatzen epe hori uneren batean eten egin zela ulertzeko.

Horren ondorioz, emandako zehapen-ebazpena ezeztatu behar da, prozedura iraungitzeagatik.



Halaber, zuhurtziaz indargabe uzteko eskatzen du.

Euskadiko Taekwondo Federazioak ez du inolako alegaziorik egin prozedura iraingitzeari buruz.

Laugarrena.- Euskadiko Taekwondo Federazioaren diziplina-erregelamendua k, 47. artikuluan, xedatzen duenez, *prozeduraren gaitan, ordezeko gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko Legea eta kirol-diziplina arautzen duten erregelamendu publikoak aplikatuko dira, baita, horrela badagokio, Euskadiko Taekwondo Federazioaren Estatutuetan aurreikusitakoa, administrazio-prozedura erkideari buruzko araez gainera.*

Hala eta guztiz ere, ez dago diziplina-espeditate baten iraingitze-epeari eta -iraingitzeari buruzko xedapenik ez Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean, ez Kirol Diziplinari buruzko Arautegia arautzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan, ez Euskadiko Taekwondo Federazioaren Estatutuetan. Hori dela eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioaren Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatu behar da (aurrerantzean, AJAPEL).

Lege horrek, salaketa baten ondoren ofizioz hasitako prozedura baten kasurako —eta hori da orain errekurtsoa jartzen zaion kasua—, honako hau xedatzen du 44. artikuluan ebazpen espresuari buruz:

*“Administrazioaren kabuz hasitako prozeduretan, ebazpen adierazia eman eta jakinarazi gabe igaro arren gehienezko epea, administrazioak ebatzi beharra dauka legez, eta epea horrela igarotzeak ondorio hauek izango ditu:
...2. Administrazioa zehatzeko ahalez edo, oro har, esku hartzeko ahalez baliatzen den prozeduretan, interesdunei ondorio kaltegarria edo zorra sortaraz badiezaieke, iraingidura izango da ondorioa. Kasu horietan, iraingidura adierazten duen ebazpenak jarduna artxibatzeko aginduko du, eta 92. artikuluko ondorioak izango ditu.*



Interesdunari egotz lekiokkeen arrazoiren bategatik geldiarazi bada prozedura, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa ere gelditu egingo da.”

Horren ondorioz, aurreikusitako epean ebazpenik eta horri legokiokeen jakinarazpenik ez egoteak prozeduraren iraungidura eragiten du ofizioz hasitako zehapen-prozedura batean (eta diziplina-prozedurak izaera hori du, jurisprudentziaren eta doktrina errepikatuaren arabera).

Alabaina, esan bezala, ETFDAn aipatzen den arautegiak, besteak beste, ez du prozeduraren iraungitze-epeaz ezer zehazten, eta, beraz, otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakora jo behar da, osagarri gisa (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko legea. Aurrerantzean, HAZAL).

Eta hori guztia EKLaren 25.1 artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta, non xedatzen baita Euskadiko eta lurralde historikoetako federazioek zenbait funtzio publiko gauzaten dituztela, kirol-diziplinaren ahala besteak beste. Administrazioaren laguntzaile gisa duten jardun horren ondorioz, administrazio-araudia aplikatu behar zaie funtzio horiek gauzatzetik eratortzen diren egintzei.

Horrela, HAZALak, 1. artikuluan, Legearen aplikazio-eremua ezartzen du: *“Euskal Autonomia Erkidegoan zigortzeko ahalmena duten ente guztiek ezarri beharko dute lege hau, erakunde komunek araugintzako eskumena duten arloetan, eskumen hori erabatekoa izan edo Estatuarekin edo lurralde historikoetako organoekin banatutakoa izan.”*

Beraz, eta prozedura ebazteko dagoen epea ezartzeko, kontuan izan behar da testu horren 43. artikuluko 4. zenbakian xedatutakoa: *“Ebazpena sei hileko epean jakinarazten ez bada, prozeduraren hasieratik zenbatuta, iraungi egingo da prozedura, 30/2015 Legean ezartzen den moduan eta bertan deskribatzen diren ondorioak izango dituelarik.*



Sei hileko epe hori lege honetan ezarritako kasuetan etenda geratuko da, bai eta interesdunengatik prozedura geldirik dagoen bitartean ere.”

Azaldutakoa ikusirik, eta diziplina-prozeduraren iraungidura izan den zehazteko, funtsezkoa da bertan egindako jarduketan kronologia argitzea. Euskadiko Taekwondo Federazioak helarazitako espedienteetan jasotzen denez, daten segida hau da:

- 2015ekoo otsailaren 6a: probidentzia eman zen, [REDACTED] jaunaren aurkako zehapen-espedientea hasteko.
- 2015eko martxoaren 5a: interesdunaren idazkia jaso zen. Idazki horretan proba bat egitea proposatzen zuen, hasiera-probidentziaren deuseztasuna edo, subsidiarioki, instrukzio-egilearen errekusazioa erabakitzeko.
- 2015eko martxoaren 12: probidentzia eman zen. Horren bidez, ukatu egiten da deuseztatze eta subsidiarioki errekusatzeko eskaera.
- 2015eko apirilaren 8a: probidentzia eman zen, lekuko-frogarako aldia irekitzeko, 10 eguneko epearekin.
- 2015eko uztailaren 20a: probidentzia eman zen, proposatutako proba egiteko, eta zitazioa egin zitzaizen lekukoei.
- 2015eko uztailaren 24a: [REDACTED] jaunari proba laguntzeko, interesdunaren ordezkaria izendatzen zuen idazkia jaso zen.
- 2015eko uztailaren 29a: lekukotza-akta.
- 2015eko irailaren 11: interesdunaren idazkia, zeinaren bitartez prozeduraren iraungipena eta, ondorioz, artxibatzea, eskatzen baita.
- 2016ko martxoaren 2a: instrukzio-egilearen kargu-orria eta zehapen-proposamena.
- 2016ko martxoaren 24a: kargu-orriaren aurkako alegazio-idazkia, eta, berriro ere, prozeduraren iraungipenaren eskaera.
- 2016ko apirilaren 12a: Epaille Bakarraren ebazpena, zeinaren bitartez probak edo lehiaketak egin bitartean kirol-instalazioetara sartzeko bi urte eta erdiko debekua ezartzen zuen zehapena ematen baitzen.



- 2016ko apirilaren 25a: ebazpen horren aurkako apelazio-errekurtsoa, zehapena zuhurtziaz indargabe uzteko eskatzekoa.
- 2016ko ekainaren 1a: Apelazio Batzordeak errekurtsoa ebatzi zuen, eta errekurtsogilearen eskaera partzialki onartu zuen, hasiera batean ezarritako zehapena murriztu egin baitzuen, kirol-instalazioetara sartzeko hamar hilabeteko debekura arte.

Segida horretatik, hau ondorioztatzen da:

1. Diziplina-prozedura 2015eko otsailaren 26an hasi zen, eta 2016ko apirilaren 12an amaitu (zehapen-ebazpenaren data da hori, espedientearen ez baita jakinarazpen-datarik jasotzen); beraz, nabarmenki gainditu da HAZALEk Prozeduraren iraungipena deklaratzeko ezartzen duen sei hilabeteko epea.

2. Ez da iraungitze-epearen etenik izan interesdunari lepora dakioken arrazoiengatik. Aitzitik, begien bistakoa da Euskadiko Taekwondo Federazioak eragindako atzerapena; izan ere, espedientea ebazterakoan, zenbait izapidetan, sei hilabete ere igaro ditu ezer egin gabe, eta, horren ondorioz, prozedurak hamalau hilabete inguru iraun du, haren iraungidura eskatzeko errekurtsogileak egindako eskaerak ebatzi ez direlarik.

Horren ondorioz, espedientea aztertu ondoren, prozedura iraungitzat eman behar da, eta egindako jarduketak artxibatu, AJAPELaren 44. artikulua 2. zenbakian xedatutakoarekin bat etorriz; hori dela-eta, gaiaren funtsari heltzeko beharrik ere ez dago. Eta, hori guztia, Lege horren 92. artikulua 3. zenbakian xedatutakoa baztertu gabe: *“Prozedura iraungitzeak ez du besterik gabe norbanakoaren edo administrazioaren akzioen preskripzioa ekarriko, baina iraungitako prozedurek ez dute preskripzio-epearen zenbaketa geldituko”*.

Beraz, ETFak badu diziplina-prozedura berri bati ekiteko aukera, balizko arau-hauste baten inguruko gertakariak ezagutu eta epaitzeko, arau-haustea preskribitu ez bada behintzat.



Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKITZEN DU:

Euskadiko Taekwondo Federazioaren Apelazio Batzordearen 2016ko ekainaren 1eko Ebazpenaren aurka [REDACTED] jaunak jarritako errekurtoa baiestea. Ebazpen horren bidez, probak edo lehiaketak egiten diren bitartean kirol instalazioetara sartzea hamar hilabetez debekatzen zion zehapena jarri zitzaion. Horrenbestez, diziiplina-prozedura iraungitzat ematen eta egindako jarduketak artxibatu egiten dira. Halaber, 2016ko ekainaren 30ean ezarritako zehapena indargabetu egiten da.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabete epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurso-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabete epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 29a.

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea